

Iraganeko jazoerak zelan hurbildu narrazioan eta albisteetan

Asier Larrinaga Larrazabal
ETBko euskara-zuzentzailea

Telebistako albistegietan gaurkotasunaren haria da ardatz: azken-azkena jazoriko berriak, momentukoak bertakoak, gertatu hurren direnak. *Orain*-aren inguruko jario honetan nekez sar daitezke aspaldiko gertaerak, denbora-eten bat sortzen dute eta.

Denbora-eten hori txiste, ipuin eta antzekoak kontaktzen direnean ere sumatzen da, baina hauetan badira baliabideak urruneko kontuak hurbilago egiteko. Estilo periodistikoan, ordea, ez dira egoki.

Updating is the basis of newscasts on television: what has just happened, what is going on now, what is about to occur. We hardly can insert old events into this continuous flow of present, for they break the time course.

We also perceive this break when narrating jokes, tales or similar, but in this case there are some means to make far stories closer. In journalese, nevertheless, these means are not suitable.

Arazoa

Aspaldiko jazoerak kontatzen direnean iraganeko formez baliatzeak distantzia psikologiko handia sortzen du. Horregatik narratzaileak, interesa piztu guran, distantzia hori laburtzeko bidetik jotzen du, alegia, kontakizuna gaurkotu egiten du.

Txisteak, ipuinak eta asmaturiko beste pasadizo batzuk kontatzen direnean ere gurago izaten da momentura bertara ekarri istorioa, horrela begien aurrean gertatzen ari den antza ematen baita.

Beste modu batean bada ere, kontatu beharrekoa iraganetik kanpoko baita definizioz, kazetaritzan, eta telebistan areago, gaurkotasunaren premia hori oso biziki sentitzen da. *Televisión Española*-ren estilo-liburuak (Mendieta 1983: 23), esate baterako, hauxe dio¹:

Telebistaz emititzen diren albisteak berrikitan gertatuak edo momentukoak bertakoak izaten dira. [...] Gaurkotasun bizi-biziaren irizpidea da nagusi, hori baita medioa existitzeko arrazoietakoa bat.

Baina inoiz, albiste batek aurretik gertaturikoaren kontestua behar duelako, hil berri baten biografia ematen delako, edo beste arrazoiren batengatik, iraganeko jazoerak azaltzen dira albistegietan. Orduan gogor samar egiten zaio kazetariari gaurkotasunaren haria etetea, halandaze beste edozein narratzailearen modura eten hori gainditzeko bidetik jotzen du.

Jakina da gaztelaniaz biografiak, txisteak eta beste zeinahi kontakizun presentean eman daitezkeena. Hain zuzen ere, César Hernández hizkuntzalariak dioenez, gaztelaniaren indikatiboko presentek balio historikoa du. *Real Academia Española*-ren gramatikak (Alarcos Llorach 1994: 156) honela definituta dakar².

Presente historiko esaten zaio orainaldiko formak erabiltzeari, bai idatzizko narrazioan bai kontaketa bizi arruntean, kronologikoki iraganean gertaturiko jazoerak emateko.

Arazoi linguistikoak

Emilio Alarcosek azaltzen duenez, batzuetan sinkretismoak gertatzen dira: morfema baten barruko oposizioak ezabatu egiten dira, neutralizatu egiten dira. Horrelako kasuetan sinkretismoa adierazten duena oposizioko elementu negatiboa (markatugabea) da.

Gaztelaniaz, denboraren morfemak dimentsio biko sistema eratzen du *remotospectivo / irremotospectivo* eta *prospectivo / improspectivo* oposizioen arabera (ik. 1. taula). *Remotospectivo* izateak aditz horrek iragana, joandako denbora adierazten duela esan gura du. *Prospectivo* tasunak aditza etorkizunari begirakoa dela agertzen du.

Prospectivo			
-		+	
Remotospectivo			
-	+		
canto	canté	cantaba	cantaré

1. taula

1. Egileak euskaratuta.
2. Egileak euskaratuta.

Canto eta *canté* formen arteko oposizioa tasun batean bakarrik gertatzen da, remotospekzioan. Beraz, remotospekzioaren neutralizazioa gertatzen denean, hau da, nahia iragana ez markatzea denean, presentea emango da: «Colón descubre América en 1492». Izan ere gaztelaniako orainaldia ez dago ez iraganari ez etorkizunari begira markatuta. Horregatik hain zuzen, iraganeko formen lekuan ezezik, futuroko formen tokian ere ipin daiteke gaztelaniaz presentea, *canto* eta *cantaré* formen arteko oposizioa ere tasun batean soilik jazotzen delako: «En septiembre se jubila don Pedro».

Euskaraz

Euskaraz, ipuin, pasadizo, txiste eta esaundak kontatzeko orainaldi burutua (*sartu da* erako aditza) erabili da. Es-tilo horren adibide polita Alfonso Irigoyenek jaso duen ipuin batean aurki daiteke:

Pozik Peru Okerra, itxi eban atzera, eta aurrera, txarriok be jan zituezan, eta allegau da gaba be ta, gabean jentil hori logura zan bada, han behoko su ondoan moskor-su handia eginda antxina ohi zan moduan, eta jentil hori lokartu da-ta, Peru Okerrak burduntzia moskor artean berotu dau, ta dza! sartu deutso begian, begi bat eukan bada, eta Peru Oker hori arin, soltau da eta ezin eregi atea, kanpora egozan ateak, ate itzalak eukazan, burdinazko ate handiak, ta ezin eregi, ta sartu da ardi-kortan, eta han dabil ardi-kortan hara ta hona, ta han dabil, eta jentil horrek igarri deutso nora joan dan, ta parau da ardi-kortako atean, eta ardiok lantzean bat kanpora, lantzean bat kanpora ateratzen zituen bada Peru Okerra atrapetako ustez, eta Peru Oker horrek zer egin dau? Han aurretik hilda eukan ardi-narru bat hartu lepotik eta arrendun ardiari kendu

deutso arrena, ipini dau samatik behera esegita, ta han dabil arren-otsean lau oinan Peru Okerra, ta ardion atzetik han dabil, eta dirautso jentilak: (...).

Jesus Maria Agirrek (1991: 707-708) antzeko adibide mordoan ematen du literatur lanetatik jasoak.

Ba ei dagoz, ba ei dagoz, ikaraz guztiak kanpotarriori izan ezik.

Gabon aurretioa zan. Bagagoz, bagagoz illunabarrean, potin txiki baten lau laguntxu, berdeletan, Orioko aurrean.

Badoa mutila ta laminea agertu jakonean elestun ori emon nahi ta ezin atara ebilen.

Badago gizona irra ta irra eta suete-goienetik bera bayatorko katua.

-Onetan niarduala emen dator Juananton.

Arotza andu kaji lepun dabela. Joban ati.

Orreik ajente bixok artuben albisti, Errentexa inguruko baserritar bat falta zala botu botateko. Ajente bixak anduz gixon orre bille.

Sutati ipurtaulkie atâ, zôn bezin laxer, sartzen da txabolan jentille; baitta be aren gañên esei ê. Baño esei zanezo deadarka jei ementzan.

Gose asmotxa dalako, milla pentsamentu erabillazan.

Badaki etxean gelditzeko eskatuko ziona, badaki umezurtzagatik arpegia aterako zuana.

Hara heldu denean, estekatzen ditu behiak arbola bati.

1996.01.12ko *Bertatik Bertara* saioan berbetan ari ziren Xabier Euzkitze eta Andoni Aizpuru, pasadizo barregarriak kontatzen. Behin urrestillar bati gauza xelebrea gertatu omen zitzaion muga, eta Andoni Aizpuruk honela azaldu zuen:

Nonbait Iparraldera joateko asmoa omen zeukan urrestillar batek lagunene bati bisita egitera, eta, garai hartan, Francoren garaian behintzat, eta pasa-

porterik ez. Eta lagun bat ba omen zuen bere antzekoa, antz handikoa, eta esan omen zion:

-Hi, utzidak pasaportea niri, horra Iparraldera joan behar diat eta, antzekoak gaituk eta, polizia, badakik, ez duk enteratzen eta utzidak.

-Utziko diat, lasai motel, hartu eta...

Hartu dik pasaportea, joan duk, eta zera mugara, frontierara joan duk eta poliziak:

-A ver, pasaporte!

Eta, poliziak pasaportea, eta hola begira, argazkiari eta begira, eta bestea, beste aldera disimulatuz ta hola ta, larri ta, ta poliziak:

-Este pasaporte está caducado.

-Allá cuidaus! No es mío.

Irigoyenen pasartean eta Agirrereren adibideetan nahiz Aizpururen pasadizoan estilo narratibo honetako ezau-garri berbalak ageri dira:

a. Iragana eta orainaldi burutua naha-sian erabiltzen dira, urrundu-hurbil-du jokoaren arabera: «txarriok be jan zituezan, eta allegau da gaba be», «badoa mutila ta laminea agertu jakonean elestun ori emon nahi ta ezin atara ebilen».

b. Aditz-elipsiak egiten dira, laguntzai-learen elipsiak bakarrik edo aditz osoarenak: «soltau da eta ezin eregi atea», «eta pasaporterik ez».

c. Joko trinkoa onartzen duten aditze-tan aukerakoa da orainaldi burutua edo orainaldi puntukaria (*dator* era-koa) erabiltzea. Jakina, adizki trinkoek aurretik *ba*- behar dute esaldiaren buruan edo mintzagaia-ren ostean badoaz: «ta ardion atzetik han dabil, eta dirautso jentilak», «Gabon aurrettoa zan. Bagagoz, bagagoz illunabarrean, potin txiki baten lau laguntxu».

d. *Esan* eta horren pareko mintzo-aditzak orainaldi puntukarian edo orainaldi ez-burutuan (*sartzen da* erakoan) ematen dira. Noski, dena orainaldi burutuan badoa aditz hauek ere orainaldi burutuan doaz: «eta dirautso jentilak».

e. Menturazko kutsua adierazteko edo, areago, esandakoaren ardura beste inori egozteko, partikula eta esapide bereziak, batez ere *omen* eta *ei*, azaltzen dira aurkezpena edo sarrera egiten denean, eta askotan aurrerago ere bai: «Ba ei dagoz, ba ei dagoz, ikaraz guztiak kanpotarri izan ezik», «nonbait Iparraldera joateko asmoa omen zeukan urrestilar batek», «eta esan omen zion».

Ezaugarri horiek dituen estiloari *eredu hurbildua* esango diogu. Gotzon Garatek (1988: 241) bizi-bizirik aurkitu du Euskal Herri osoan.

*Entonces Onintze va y le dice: orduan Onintze joaten da eta esaten dio: joan da, bada, Onintze eta esan dio... (O [Odriozolatxo (Azpeitia)], G [Goizueta. Errero Borda], EL [Elgoibar (Senideak)], ID [Idiazabal (Aitzeder)], IB [Irunbein (Markin-Etxebarri)], IP [Ipurtotz (Aramaio)]), Baserrian bi lagun bizi ziren. Etorri da kanpoko gizon bat eta... (O, G). *Harrijoka ari ziren. Holako batean botatzen diote harri bat...: ...bota diote arri bat... (O, ID, G, ITS).

Ezin da esan, dena dela, jokabide hori bakarra izan denik. Iparraldean batik bat orainaldi ez-burutuaren aldeko joera nabari da. Pierre Lafittek bere gramatikan (1987: 368) dioenez orainaldi ez-burutuak iragana adieraz dezake, hots, balio historikoa har dezake: «Hor zauden gostuan jarririk, noiz eta ere agertzen baitzaizkote bet-

-betan hiru jaun bizar gorri». *Erdal estilo historikoa* esango diogun eredu horren arabera-koak dira, kasurako, Jon Miranderen txisteak edo Wendworth Webster-ek bilduriko ipuinak. Azken horrek jasoriko bat da hau (1993: 31):

Asko munduan bezala baziren bi mandozain. Bakotxak bazituen zazpi mando. Bazoazin bere manduak kargatuak merkaturat. Egiten dute parigo bat eta galtzen zuenak galtzen zituen bere zazpi manduak. Irabazten du batek parigua, bainan ez bide zuzenez. Tronpatu zuen. Alere ematen diozka mandoak.

Galdu zuena familiako aita zen haurrez kargatua. Ez zakien nola in bere etxerat gateko, halako pena zuen gertatu zitzaionaz. Zer egiten du? Etxerat gateko pasatu behar zuen zubi batetik. Badoha haren azpirat han pasatuko duela gaba. Gaberditan aditzen du bozaz leher. Sorginak heldu ziren akelarrerat. Batek fusta, bertzeak husta, han hari ziren dantzan atabal soñuz.

Ipuin-hasiera hau nahiko argigarria da. Gorago estilo hurbildurako eman ditugun ezaugarriak ia denak betetzen dira erdal estilo historikoan ere. Alde bakarra orainaldi burutuaren lekuan orainaldi ez-burutua erabiltzea da.

Bestela:

a. Iragana eta orainaldi ez-burutua nahasian: «Tronpatu zuen. Alere ematen diozka madoak».

b. Aditz-elipsiak: «batek fusta, bertzeak husta».

c. Orainaldi puntukaria joko trinkoa onartzen duten aditzetan: «badoha haren azpirat han pasatuko duela gaba».

d. Menturazko partikulak edo esapi-deak: «asko munduan bezala».

Orain artekoa irakurrita hala dirudikeen arren, eredu hurbildua ez da hegoaldean bakarrik ezagun, eta halaber erdal estilo historikoa iparraldea baino harago ere erabiltzen da. Ivan de Tartasen (1995: 109/111) liburuak, esate baterako, hainbat pasarte ditu eredu hurbilduan emanak, ondokoa horien artean. Testu-zati honetan garbi azaltzen dira estilo hurbilduaren ezaugarri berbalak:

Virgina hec, hambat çuhurrac nola elguerrac, aiduru daudiala eta beha espos-esposaren, hayen asqui orduz gin edo arriuatu faltaz, egunaz gau ilhuna eta beltça bilhatu çuten. Hambatequi hamar virgina gaicho hec, nola berandia baitcen eta desorena, loac inganaturic eta trompaturic oherat ioan ciren, gaüerdiaren ingurutan. Açantz eta oihu handi bat heldu da erraiten dialaric: «Espos-esposac huna dira; ialqui citezté hayen errecibitcera.» Ordian virginac oro çutituric norc beré lampac, çuhurrec bereré, onartu çutien eta preparatu. Virgina elguerrac hassi dira erraiten çuhurrac: «Iguicié parté cien oliotic, guré lampac hil dira, eztugu arguiric.» Baiña çuhurren arrapostia cen hau: «Çoazte ordu onian marchanten botiguetara, eros eçacié guc beçala; guretic cier parté emanic, ezcunduque asqui cien eta guré.» Arté hartan elguerrac olio eroatera ioaten cirela, espos-esposac eta hequila bortz virgina çuhurrac ezteitan sartu dira banquetian, eta ostatiaren portalia guiltçaz cerratu: «Clausas est ianua.» Noizpait bortz virgina erhoac heldu dira oihuz portaliaren truccatcera: «launa, launa, othoy idequi çaguçu portalia.» Baiña barneco arrapostiac dio: «Çoazté passeura, etçutiet eçagutcen.»

Hori baino adibide zaharragorik ere badago. Hona *Bereterretxen khantore-*

ko bat: «Bi belhañez herrestan sarthü da Lakharri-Büstanobila». Iraganean emanda dagoen erromantze horretan oso efektu berezia egiten du halako batean oraindira etortzeak. Moduren batean esateko, hurbiltze-pauso horrek tentsio narratiboa handiagotzen du. Formula batzuek, gainera, areago emendatzen dute oraindirako pausoren efektua. Formula horiek «zer gertatu da», «zer egin du», «zer egiten du» erako itaun erretorikoak dira. Dolores Lertxundi oriotarra oso ondo baliatu da efektu horretaz bere aitari buruz aritzean (Iturain-Loidi 1995: 188):

Ayek batetzekiyela kalentamentua iñez juntzian, itxura danez, entenitzen? baño batetzekiyela, oain kalentamentuk iteitue, baño ordun batetzekiyela. Ze gertatua? Donostia jun eta indue irabazi.

Oro har, ohizkoa da txisteak orainaldi burutuan kontatzea. ETBren *Txiskola* saioan, erdal estilo historikoaren araberrako apur batzuen ondoan, hainbat txiste entzun genuen eredu hurbilekoak 1995eko abenduaren 4an. Hona hemen bi.

Juan Carlos erregea joan da Inglaterrara bisita ofizialean, eta Isabel II.a erreginarekin sartu dute hauetako karroza batean, edo, han dozena bat zaldi tiraka zihozten karroza batean, eta zaldietakoren batek demaseko uzterra bota eta aguantatuezineko usaina gelditu ez zaie, ba, kabina barruan.

Eta egoera inkomodoa horrelako pertsona diplomatikoen artean, eta halako batean Isabel II.a erreginak, ba, nondik irten ez zekiela esan die:

-Barka, e!

Eta Juan Carlosen erantzuna:

-Ba lasai! Zaldia izan dela pentsatu dut. (Felix Iñurrategi –Aretxaba-leta–).

Badakizue lurtarrok zaborrak espaziora bialtzen ditugula, eta nonbaiten Marte alde horretara joan dira behar baino gehiago, eta martearrak leporaino eginda jarri dira ja.

-Bueno, hi, kexa egin behar diagu zergatik hau ez da abelerea, pentsatu diagu Lurrera joatea.

Joan dira Lurrera, behinik behin, kexatzera, eta hor aterrizatu dute zera batean, surtidore batean, gasolindegi batean, eta atera eta segituan egin dute eta hor hasi dira:

-Bueno aizue, ja nazka-nazka eginda ere, e? Hau ez da abelerea, e? Nahi duzuen lekura bialdu itzazue zuen zabor guztiak, e? Baina, baina gelditu ja, e? Zuek, zer pentsatzen duzue zuek? Zuek komodoak, joño, guri bialdu.

Eta behinik behin jesukriston txapa sartu diete. Eta sartu dira han pote hortan, eta benga, beste behin Marte aldera. Han nagusiak:

-Zer, ze berri?

-Ze berri? Aritu gaituk esan eta esan, esan eta esan, eta ezta kasurik egin.

-Kasurik ez, e? Horiek dituk horiek, horiek dituk potroak horiek.

-Petroak? Petroak ez dakit, baina txilibitua, begira, hemen atzetik jarri, atzetik eta belarriraino eramaten dute. (Andoni –Lazkao–)

Horrez gainera, iraganeko adizkiak hutsik oso sarri erabiltzen dira, jakina. Azkueren *Aintziñako Ipuiñak* horrela dago idatzita. Juan Manuel Etxebarriak Gorbeia inguruan bildu dituen ipuin, esaunda eta jazoera gehienak ere iraganen daude kontatuta, baina badira bat edo beste eredu hurbilekoak. *Erregeren aurpegia* izeneko ipuina Azkueren liburuan (1968: 26) dator.

Arzulo batean senarremazteak lau aurrekin bizi ziran. Amaika lauко egunean irabazten zituen aita ikazkintzan eta ilean duro bat enparatzen zitzaien. Errege, eizean ari zan egun batez, ikazkinarengana eldu zan ta nola bizi zan galde egin zion.

-Guk –erantzun zion ikazkinak– basasagarrik eta ezkurak jaten ditugu; ta artale igarrak suten egiten dituzten opil txuriak salbatzen gaituzte.

Errege, ze irabazten zuen jakinez, arritu zan.

Arrazoi linguistikoak

Gaztelaniaz *canto* eta *canté* formen arteko oposizioa tasun bakar batean gertatzen da, eta hortaz zilegi da oposizio hori ezabatu eta neutralizazioa egitea.

Euskaraz, ostera, denbora berbalaren sistema ez da gaztelaniakoaren antzekoa. Aditz-denbora morfema bakar batean barik bi morfematan gauzatzen da. Batetik tempus morfemak aditza joandako denborari dagokion (+ iragan) ala bizi gareneko denborari dagokion (+ orain) adierazten du. Bestetik aspektu morfemak aditzaren ekintza amaituta dagoen (+ burutu) ala gertakizun den (+ gero) agertzen du.

Euskaraz *sartzen da* eta *sartu zen* formen artean oposizio bi gertatzen dira, tempusean eta aspektuan (ik. 2. taula). Ezin dira, beraz, neutralizatu, sinkretismoa gertatzeko tasun bakar baten araberrako oposizioa ezabatzea soilik delako zilegi.

	TEMPUSA	ASPEKTUA
sartu zen	- orain + iragan	+ burutu - gero
sartzen da	+ orain - iragan	- burutu - gero

2. taula

Sartu da eta *sartu zen* formen arteko oposizioa ezaugarri bakar batek ezartzen du (ik. 3. taula). Adizki biek adierazten dute bukatuta dagoen ekintza, alegia, bien aspektua burutua da, baina lehena hitzuna dagoen denbora-unitatearen barrukoa (orainaldi-koa) den bitartean bigarrena joandako aldiari (iraganari) dagokio. Horrenbestez, denbora zehazten ez bada, konta-

kizuna noiz gertatu den garbi adierazi gura ez bada, zilegi da tempusaren barruko *orainaldiko/iraganeko* oposizioa neutralitzea. Garbi utzi behar da, beraz, berriro ere, iraganaren lekuan orainaldia erabiltzea ez dela aukerakoa. *Sartu zen* eta horrelakoen ordez *sartu da* jartzeko ezin da momentu jakina adierazi, ez baita bestela tempusaren barruko oposizioa ezabatzen. Hain zuzen ere, ipuinetan eta, *behin*, *behinola*, *antzina* eta antzeko formula zehazgabeak azaltzen dira denbora zehatz-mehatz ez adierazteko.

	TEMPUSA	ASPEKTUA
sartu zen	- orain + iragan	+ burutu - gero
sartu da	+ orain - iragan	+ burutu - gero

3. taula

Ondo ulertzen da, horrenbestez, eredu hurbilduan ematea euskaraz ipuinak, pasadizoak eta abar. Ezin da ukatu horren ondoan erdal estilo historikoa ere erabiltzen dela, baina ziurrenik gaztelaniaren eta frantsesaren eraginez. Gaur egun indar handiz sartu zaigu erdararen eragin hori, eta euskaraz erabili diren ereduak baztertuta, batez ere umeen artean, eredu oker berriak zabaltzen hasi dira. Ondoko txiste biak, esate baterako, ume bik kontatu zituzten 1995eko apirilaren 27ko emisioan *Baietz Barrez Lehertu* saioan. Berehala igartzen da gaztelaniaren kalkoz moldatuta daudela eta ez dutela bat ere zerikusirik gorago eman ditugun ereduekin.

Doa gizon bat desertutik eta aurkitzen du gorbata-saltzaille bat, eta bi, eta hiru, eta lau, eta... ez du gorbatarik erosten, eta gero heltzen da iturri batera eta jartzen du kartel bat esaten duela:

-Hemen ezin da urik edan gorbatarik gabe.

Hau da andre bat doala portutik paseatzen eta ikusten du bat itota, hor, eta esaten du itota dagoenak:

-Soka bat, soka bat, mesedez!

Eta esaten dio:

-Zu itota, eta gainera zure burua urkatu nahian!

Estilistika

Hasierako arazoari helduta, ikusi dugu euskaraz ere badaudela bideak narrazioan urruntasun tenporalak sortzen duen urruntasun psikologikoa laburtzeko, nolabait esateko, entzuleari jazoerak gertuagoko egiteko. Ipuin, txiste, pasadizo, esaunda eta beste hainbat eratako istorioen kontaketa erruz baliatzen dira.

Telebista eta irrati-tako albistegi-tan orainak agintzen du, egunkarietan ez bezala aurreko eguneko informazio zahar geratuta dago. Horrek ez du esan gura notizia horiek lekurik ez dutenik, baina halako kasuetan garrantzi handia dauka informazioa aurkezteko moduak. Esate baterako askotan jotzen dugu, *bart* sartuta, orainaldiko formez baliatzera. Notizia gaurkotzeko nahiak bultzatzen gaitu, muturreraino batzuetan: *bart iluntzean* / *bart arratsean* esan, eta aurreko eguneko gertaera bat zaharberritu egiten da.

Euskara periodistikoan, edozein modutan ere, ez dirudi egokia denik *sartu da* eta horrelakoak erabiltzea iraganeko jazoerak azaltzeko. Zehaztasuna da nagusi kazetaritza arloan; datuak (tenporalak barne) ondo eman behar dira. Horrek debekua jartzen dio estilo hurbilduari. Esan bezala, iraganekoari buruz ari garela, orainaldiko formez baliatzeko baldintza behinena

da tempusaren barneko oposizioa neutralizatzea, denbora zehaztu barik egotea. *Atzo*, edo *duela hiru egun*, edo *joan den astean* esaten bada berria kokatu egiten dugu, erreferentzia tenporalak tempusaren barruko oposizioa indartu egiten du, eta ez ezabatu.

Euskarazko medioen estilo-arauek, hortaz, iragan hutsa erabiltzea gomenatzen dute. Areago, gaztelaniako *canto* balioguztidunaren aurrean, euskaraz *sartzen da* denetarako erabiltzea gaitzesi eta tempusa eta aspektua ondo zehaztea hobesten da. *Egunkaria*-ko estilo-liburuak (1992: 36), adibidez, hauxe dio: «Era berean, iraganeko gertakariak lehenaldian idatzi». ETBren jarraibide linguistikoek ere gisa honetako testuak proposatu dituzte:

XX. mendeak hamabigarren urtea bete zuenean jaio zen Jesus Insausti. Aita fundizioko langilea zuen eta ama arrain-saltzailea. 1930.ean Euzko Alderdi Jeltzalean sartu zen eta handik gutxira ELA-STV sindikatuarekin konpromezua hartu zuen. *Euzkadi* argitalpen abertzalean eta *El Día* egunkarian idatzi zuen. Egunkari honetan idatzitako artikulu bat zela eta, Tolosako alkate karlistak jarritako salaketari aurre egin behar izan zion. Gerra Zibila hasi eta handik gutxira Eusko Jaurlaritzaren Boletinean itzultzaile sartu zen, italiarrek harrapatu arte. 1937. urtea zen. Hurrengo 14 urteetan gartzela eta isilpekotasuna, klandestinitatea, izan zituen lagun Uzturrek. Esan bezala, 37an atxilotu zuten, handik 4 urtera kaleratu. 1947an berriro ere espetxeratu zuten, Francoren aurkako informazio sare baten kide izateagatik, eta heriotza zigorra ezarri zioten. Hala ere, heriotza zigorra atzera bota eta horren ordez 30 urteko kartzela zigorra jarri zioten, baina Buitrago de la Fronterako kartzelatik hanka egin eta muga pasatzea lortu zuen. Atzerrian, 10 urte eman zituen Parisen, Agirre lehen-

dakariak deituta, eta 20 Belgikan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen prentsa arduradun. Orain 13 urte itzuli zen Euskadira, eta 1985.ean EBBko, PNVren zuzendaritzako Presidente izendatu zuten. Sabino Arana Fundazioaren presidentea izan da hil arte eta kargu horretan ikusi du bere ilusioetarikoa bat gauzatuta: Abertzaletasunaren Artxibo Historikoa.

Oso aintzat hartzekoa da, bestalde, kazetaritzan hizkuntza-maila estandarra dela baliatu beharrekoa, horren bidez soilik lortzen baitugu batetik informazioa ematean ezinbestekoa den jarrera neutrotik ihardutea, bestetik hartzaileari zor zaion adeitasuna gordetzea, eta gainera mezua pertsonarik gehienentzat ulergarri izatea. Uzturreren biografia hau orainaldian kontatu izan balitz seriotasun-puntu bat galduko zuen. Izan ere, gorago azaldu bezala, estilo hurbilduak tentsio narratiboa areagotzen du, gertaerak begien aurrera urreratzen ditu, eta orobat, ukitu ez oso formala eta arina ematen dio narrazioari, alegia, kontakizuna solas-mailara jaisten du.

Erdal estilo historikoa are desegokiagoa izango zen. Batetik eman ditugun arrazoi linguistikoek garbi erakutsi dute iraganaren lekuan ez dela orainaldi ez-burutua ondo sartzen. Halaber, goiko paragrafoko traba estilistikoak orainaldi ez-burutuari ere egotz dakizkioke: kontakizuna oraingo momentura hurreratzeak estilo periodistikoan behar den formaltasuna zapuzten du. Eta azkenik, denbora osoan *-tzen* eta *-tzen* aritzea guztiz nekagarri eta itsusia da.

Horrenbestez, 1996ko urtarrilaren 8an Mitterrand hil zela eta Euskal Telebistak emititu zuen erreportaiak alde nabariak ditu, aditzaren erabilerari dagokionez, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan.

Hona euskarazkoa:

a. 1965ean, lehendakaritzarako kanpainan, François Mitterrandek esan zion Pierre Mauroy-ri politikoki ados dauden ehun lagun prestuekin gobernatuko zuela egunen batean Frantzia. Haietako gizon eta emakume batzuk han zeuden lehendakaritzarako lehen kanpainan. Baina baziren gehiago: batetik gazteak, gerrakoak, erresistentziakoak, eta bestetik Epinay, partidu sozialista, boterea.

Eta gaztelaniazkoa:

b. En 1965, durante la campaña por la presidencia, François Mitterrand declara a un Pierre Mauroy atónito que con cien hombres resueltos y puestos de acuerdo sobre un proyecto político, un día gobernará Francia. Algunos de esos hombres y de esas mujeres están con él en su primera campaña por la presidencia. Pero también hay otros de épocas anteriores: de su juventud, de la guerra, de la resistencia, y además de Epinay, del partido socialista, del poder.

Esan dezagun, azkenik, iraganeko jazoerak emateko kontu hau oso zuzenki loturik dagoela aztertu beharreko beste arazo batekin. Ez da ahaztu behar telebistak edozein gertaera berpizteko ahalmena duela, eta benebenetan hurbiltzen dituela gertaerak begien aurrera, ez bakarrik metaforikoki.

Bibliografia

- Agirre Berezibar, J. M. (1991): *Euskal Gramatika Deskriptiboa*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- Alarcos Llorach, E. (1977): *Gramática estructural*, Gredos, Madril, 2. argitalpena.
- , (1994): *Gramática de la lengua española*, Espasa Calpe [Real Academia Española], Madril.
- Arrasate, M. (1992): *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*, Euskal Irrati Telebista, Iurreta.
- Azkue, R. M. (1968): *Aintziñako ipuiñak*, Itxaropena argitaldaria, Zarautz.
- Egunkaria. (1992): *Estilo-liburua*, Egunkaria, Donostia.
- Etxebarria, J. M. (1995): *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*, Labayru ikastegia, Bilbo.
- Etxenagusia, K. (1981): *Iparaldeko euskal idazleak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- Euskaltzaindia. (1987): *Euskal gramatika lehen urratsak II*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Garate, G. (1988): *Erdarakadak*, Ediciones Mensajero, Bilbo.
- Hernández, C. (1984): *Gramática funcional del español*, Gredos, Madril.
- Irigoyen, A.: "Peru Okerra-ren herri-ipuin Aulestin bildurikoa eta Polyphemo-ren zykloan behinik-behin sartzen datekeena", *De re philologica linguae uasconicae V*, argitaratzeko.
- Iturain, I. Loidi, L. (1995): *Orioko euskara*, Orioko Udala - Euskara batzordea, Orio.
- Lafitte, P. (1987): *Grammaire basque*, Elkar, Donostia.
- Mendieta, S. (1983): *Manual de estilo de TVE*, Labor [RTVE], Bartzelona.
- Peillen, T. (1981): *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, Ediciones Mensajero, Bilbo.
- Tartas, I. de (1995): *Oña Hilceco Bidia*, P. Altuna arg., Euskal Herria Saila, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 13.
- Webster, W. (1993): *Ipuinak-II*. Klasikoak bilduma, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 57.
- Zenbait (1995): *Zabalkunde-orria 2*, Euskal Irrati Telebista, Iurreta.